



ORIOK OUDALA

Euskaraz
bizi-bizi

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2020ko azaroaren 26a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:30

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Ibarguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Irakurri eta onartzea, egoki bada, udalbatzarraren 2020ko irailaren 24ko eta urriaren 29ko ohiko bilkuretako akten zirriborroak.



- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko Udalaren 2021eko aurrekontu orokorra eta aurrekontuaren exekuzioari buruzko udal-araua.
- 3.- Onartzea, egoki bada, Udalaren 2021eko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda.
- 4.- Onartzea, egoki bada, EH Bildu udal talde politikoak aurkeztutako mozioa, Udal finantzaketarako Foru Funtzari eta Zorpetzeari buruzkoa.
- 5.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- IRAKURRI ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALBATZARRAREN 2020KO IRAILAREN 24KO ETA URRIAREN 29KO OHIKO BILKURETAKO AKTEN ZIRRIBORROAK.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

ONARTZEA udalbatzarraren 2020ko irailaren 24ko eta urriaren 29ko ohiko bilkuretako aktak.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO UDALAREN 2021EKO AURREKONTU OROKORRA ETA AURREKONTUAREN EXEKUZIOARI BURUZKO UDAL-ARAUA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. 2021eko aurrekontuaren eta horren exekuzioari buruzko udal-arauaren berri jasotzeaz gain, udalbatzarrak beste bi dokumentu hauen berri ere jasotzen du: idazkari-kontu-hartzaileak egindako aurrekontu-egonkortasuneko, iraunkortasun finantzarioko eta gastuaren erregelako helburuak betetzeari buruzko txostena, eta Orioko Udalak ematen dituen dirulaguntzen erregimen juridikoa arautzen duen udal-ordenantza.

Udalbatzarrak jasotzen du, baita ere, 2021-2023 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren berri.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzorde informatzaileak 2020ko azaroaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:



1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2021eko aurrekontu orokorrari; hau da aurrekontuaren laburpena, kapituluak:

ORIOKO UDALAREN AURREKONTU PROPIOA

Sarrerren egoera

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Zerga zuzenak	1.417.006
2	Zeharkako zergak	247.485
3	Tasak eta bestelako sarrerak	1.463.853
4	Transferentzia arruntak	4.331.447
5	Ondarezko diru-sarrerak	170.454
6	Inbertsio errealen besterentzea	743.044
GUZTIRA		8.373.289

Gastuen egoera

Kapitulua	Izendapena	Euroak
1	Pertsonaleko gastuak	3.403.097
2	Gastuak ondasun eta zerbitzuetan	2.598.787
3	Finantzaketa-gastuak	30.000
4	Transferentzia arruntak	1.292.994
5	Kreditu globala	183.839
6	Inbertsio errealak	782.716
7	Kapital-transferentziak	81.856
GUZTIRA		8.373.289

2.- ONARTZEA Udalaren aurrekontu propioa exekutatzeko udal-araua, 2021. urteari dagokiona, Udalak emandako dirulaguntzen erregimen juridikoa arautzen duen ordenantza orokorrari buruzko eranskinarekin.

3.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udaleko 2021eko aurrekontu orokorra, aurrekontu propioa biltzen duena, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 112.3 artikuluan eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 15.1 artikuluan ezarritakoa betez; arau hauek erregulatuko dute informazio publikoa:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailtzan.

b) Espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).



c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrian erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, aurrekontu orokorra behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

4.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2021-2023 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoari. Hortaz, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. eta 70.2 artikuluetan xedatutakoa betez, jendaurrian jarri behar da, interesdunek espedienteaz aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Epe horren barruan erreklamaziorik aurkezten ez bada, Dirulaguntzen Plan Estrategikoa behin betiko onartutzat joko da.

Emandako botoa azaltzeko, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak aldeko botoa eman diola 2021eko udal-aurrekontuari, EAJk egindako proposamenak jasotzen dituelako eta bere talde politikoak beti jokatzeko duela Orioko herriaren alde. Aurrekontuak, gainera, COVID-19aren pandemiak sortutako kalteak murrizteko partidak jasotzen ditu eta beste partida garrantzitsu asko; horien artean, azpimarratu nahi ditu herrian berdintasuna eta inklusioa lortzeko partidak, herri-baratzak finantzatzekoak, haur-parke bat estaltzekoak eta beste partida hauek:

- Antxiola kaleko irisgarritasuna hobetzeko partida irekia.
- Ortzaikan aisialdi-gune bat egiteko partida irekia.
- Txanka eta Anibarko Portua arteko irisgarritasuna hobetzeko partida irekia.
- Zaragueta eskolako pilotalekua hobetzeko partida irekia.

Bestalde, bere talde politikoak nabarmendu nahi du aurrekontuan Mutiozabal eta Etxeluze eraikinak egokitzeko partidak sortu direla, Orioko itsas ondarea dinamizatzeko proiektua abian jartzeko. Azkenik, nabarmendu nahi du eta merezi duen balioa eman nahi dio gizarte-ongizatearen arloan egindako lan handiari.



Ana Priede zinegotziak hartzen du hitza, PSE-EE-PSO Eren izenean, eta adierazten du seinale ona dela 2021eko udal-aurrekontuak onartzeko erabakia aho batez hartzea. Bere ustez, gai hauek dira nabarmentzekoak:

- Handitu eta indartu egin dira COVID-19aren pandemiak sortutako kalteak finantzatzeko gizarte-partidak.
- Gastuen 6. kapituluan jasotako inbertsioak Udala osatzen duten talde politiko guztiek egindako eskaeren isla dira eta, beraz, ez zaizkio egileen izen-abizenak jarri behar.
- Eskertu eta baloratzekoa da Anuska Esnal alkateak egindako lan handia, aurrekontuak onartzeko akordioa ahobatezkoa izan dadin.

Bestalde, adierazten du zehaztu nahi duela Lourdes Salsamendi zinegotziak esandakoa Anibarko Portuaren irisgarritasuna hobetzeko aurreikusitako inbertsioari buruz: izan ere, inbertsio horren proposamena Anibarko Portuko auzo-elkarteak egin zuen aurreko agintaldian eta ez Udaleko alderdi politiko batek; gainera, esan behar da inbertsio horren proiektuak ez duela, gaur-gaurkoz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako Departamentuaren baimenik, eta hari dagokio baimentzea.

Aipatua izan delako, Lourdes Salsamendi zinegotziak hartzen du hitza eta adierazten du Anibarko Portuko jarduketa-eremua Udalaren eskumenekoa dela.

Jose Angel Iparragirre zinegotziak hartzen du hitza, ORAIN talde politikoaren izenean, eta eskerrak ematen dizkio bere talde politikoari 2021eko udal-aurrekontua aztertzeko eta proposamenak planteatzeko eman dioten laguntzagatik. Bestalde, zorionak ematen dizkie Gizarte Ongizateko batzorde informatzaileko kide guztiei eta adierazten du oso pozik dagoela hartutako erabakiagatik, bere talde politikoak egindako eskaera guztiak kontuan hartu direlako eta, kirol alorrean ere, 2021eko aurrekontuan jasotako partidak uste baino hobeak direlako.

Alkateak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du COVID-19aren pandemiak pisu handia izan duela 2021eko udal-aurrekontua prestatzerakoan, eta nabarmentzekoa dela, bestalde, udal-aurrekontua aho batez onartu izana eta, beraz, hamahiru zinegotzien ilusioa piztu izana.

Alkateak eskerrak eman nahi dizkio bere talde politikoari, erakutsi duen jarrera proaktiboagatik. Nabarmentzen du udal-aurrekontuak udalbatza osatzen duten lau talde politikoaren eskaerak jasotzen dituela eta adierazten du, baita ere, udal-teknikarien eta batzorde informatzaileetako kideen jarduera gardena izan dela, eta gogoz saiatu direla zehatz kalkulatu aurreikusitako diru-sarrerak eta 2020ko aurrekontutik 2021eko aurrekontura txertatu beharreko kredituak.

Adierazten du, baita ere, 2021eko udal-aurrekontuak proiektu estrategiko ugari jasotzen dituela COVID-19aren pandemiak herrian sortutako kalteak gutxitzeko:



gizarte-ongizateko partida ugari, Orioko herria biziberritzeko plan estrategikoa, udal-kanpinaren biziberritzea...

Bukatzeko, adierazten du faltan bilatu duela Andoni Torres zinegotziak zerbait esatea udalbatzar honetan, hura baita EAJko ordezkaria Ogasuneko batzorde informatzailean eta, beraz, ondo ezagutzen baitu Udalaren 2021eko aurrekontuaren edukia.

3.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDALAREN 2021EKO PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta Ogasuna eta Pertsonala batzorde informatzaileak 2020ko azaroaren 20an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA Orioko Udalaren 2021eko plantilla organikoari eta lanpostuen zerrendari.

2.- JENDAURREAN JARTZEA Orioko Udalaren 2021eko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda; arau hauek erregulatuko dute informazio publikoa:

a) Ikusgai dagoen tokia: Udaleko Idazkaritza-Kontu-hartzailetzan.

b) Espedientea aztertzeko eta erreklamazioak aurkezteko epea: Hamabost lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontatzen hasita (iragarkia jarriko da, baita ere, iragarki-taulan eta udaletxeko ohiko tokietan).

c) Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikulua zerrendatzen dituen interesatuak.

d) Inpugnatzeko arrazoiak: Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 17.2 artikulua zehazten dituenak.

e) Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko sarrera-erregistroa, bulego-orduetan. Astelehenetik ostiralera, 8:30etik 14:30era.

f) Zein organoren aurrean: Udalbatzarra.

Jendaurrean erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharrik jaso gabe, Orioko Udalaren 2021eko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda behin betiko onartutzat joko da, beste erabakirik hartu behar izan gabe.



3.- ARGITARATZEA plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, behin betikoz onartuta dagoenean, jendeak jakin dezan, Toki Araubidearen alorrean indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Lege Dekretuaren 127. artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Eusko Legebiltzarreko Legearen 16. artikuluan ezarritakoa betez.

4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, EH BILDU UDAL TALDE POLITIKOAK AURKEZTUTAKO MOZIOA, UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSARI ETA ZORPETZEARI BURUZKOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Mozioak honela dio, hitzez hitz:

MOZIOA, UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSARI ETA ZORPETZEARI BURUZKOA

COVID-19 koronabirusak mundu osoan eragindako osasun- eta ekonomia-krisiak pandemiak bereziki kaltetutako zerbitzuetan gastu handiagoa eragin du, bai eta zerga itunduen bidezko diru-bilketa txikiagoa ere.

Udalek beren aurreikuspenak alde batera utzi dituzte eta beste lehentasun eta behar batzuei aurre egin behar izan diete, hala nola: herritarren osasun-segurtasuna bermatzeko neurriak hartu, garbiketa-zerbitzu gehigarriak ezarri, gizarte-politiken esparruan sortutako behar berriei erantzun, udal-merkataritzza eta -zerbitzuak babestu...

Gainera, udalen zerbitzu asko bertan behera uzteak, alarma egoeraren ondorioz, galera ekonomikoak eragin ditu udaletan.

Une honetan, koherenteak izan behar dugu deskribatutako egoera berriarekin, gastu eta diru-sarrera handienak arintzeko eta euskal ekonomiaren susperraldia eta dinamizazioa bultzatzeko.

Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak, irailaren 30ean bilduta, 2020an % 3,5eko defizita onartu zuen euskal erakundeentzat, eta % 3koa 2021erako (% 2,2 Eusko Jaurlaritzarentzat eta % 0,8 aldundientzat). Akordio horretan, lehen aldiz, foru-aldundiei zorpetzeko gaitasun propioa aitortzen zaie.

Horrela, Ogasun Ministerioarekin uztailaren itxitako akordioari (defizitaren % 2,6 hitzartu zen), foru aldundientzako berariazko % 0,9 gehitu zaio orain, eta % 3,5 euskal erakunde guztientzat 2020an.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun sailburuak adierazi du zorpetze-eragiketen kargurako finantzaketa handiagoa eta, ondorioz, epe luzeko zorra handitzea zentzuz onar



daitekeela, Euskal Autonomia Erkidegoaren finantza- eta kaudimen-egoera kontuan hartuta, eta zor publikoaren maila autonomia-erkidego guztietako txikienen artean dagoela BPGd-ari dagokionez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabaki zuen udalei % 20 murriztuko zitzaiela azken bi hiru hilabeteetan 2020rako bideratuko zen foru funtsa. Baina 2020ko urriaren 15ean egindako Finantza Kontseiluan adierazi zen bilketa % 13,3 jaitsiko zela.

Euskal erakundeen interesen aldeko testuinguru horretan, inoiz baino beharrezkoagoa da Gipuzkoako udalak udal-aurrekontuen finantza-jarraitutasuna erraztuko duen akordio batean integratzea, Gipuzkoako Foru Aldundiak zorpetzeko duen ahalmenaren bidez. Horrek balioko luke Udal Finantzaketarako Foru Funtsetik (FOFIM) datozen diru-sarrerak ez murrizteko ekitaldi honetan eta hurrengoan, COVID-19k sortutako egungo krisiaren bi urte gogorrenetan. Udalek Aldundiarekin duten zorpetze-formula horren bidez, udalek itzuli egingo lukete 2022an eta 2023an itundutako zergengatik izandako diru-sarreraren murrizketari dagokion zatia. Bizkaiko eta Arabako foru erakundeek dagoeneko iragarri duten formula da, eta gure lurraldera zabaltzeko eskatzen dugu.

Horrela, datorren urteko udal aurrekontuen plangintza abiatuko litzateke, ziurtasun- eta egonkortasun-bermeekin, eta, zalantzarik gabe, gure hiriko herritarren onerako izango litzateke, egungo egoera ekonomiko eta sanitarioa gehien pairatzen ari diren gizarteko sektoreekiko konpromiso publikoak indartuz.

Horregatik, Orioko Udalaren osoko bilkurari eskatzen diogu honako hau erabaki dezala:

- 1. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea azaroan egin beharreko Foru Funtsetik ordainketa Finantza Kontseiluan 2020ko urriaren 15ean informatutako aurreikuspenekin bat etorriz egin dadila.*
- 2. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, zorpetzeko duen gaitasuna kontuan hartuta, udalek, hala nahi badute, 2020rako FFFMren hasierako aurreikuspenetan dagokien guztizko zenbatekora arte eska dezatela. Udalek 2022an eta 2023an konpentsatuko dizkiote zenbateko horiek Foru Aldundiari.*
- 3. Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, hala nahi duten udalekin batera, Itunaren Batzorde Mistoaren esparruan itundutako zenbatekoaren % 40 gutxienez zorpetzeko ahalmena izatea.*
- 4.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eudeli erabaki honen berri ematea.*

Andoni Torres zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak kontrako botoa emango duela, hitzez hitz jasotako arrazoi hauengatik:



EH BILDU-ren MOZIOA, UDAL FINANTZAKETARAKO FORU FUNTSARI ETA ZORPETZEARI BURUZKOA. EAJ-ren ERANTZUNA.

EAJ udal taldetik ez ditugu ulertzen mozio honen ez arrazoa, ez eta aurkezteko momentua.

Denok dakigun bezela, Gipuzkoako Foru Aldunditik 2020ko martxoa bukaeran egindako zerga bilketaren aurreikuspenetan, aurrekontuaren aldean, zerga bilketa %20 eta %25 tartean eror zitekeela aurreikusi zen.

Martxoan aurreikuspenak egitearen zailtasunaz jabetuta, 3/2020 Foru Dekretu-Arauean, honako hau ezarri zen: "Gipuzkoako Finantzen Kontseiluak proposatuta, azaroko konturako ordainketen zenbatekoa berrikusi ahal izango zela, Eusko Jaurlaritzari egin beharreko ekarpenen aurrelikidazioan oinarrituta."

Azkenean, eta mozioak aipatzen duen moduan, 2020ko urriaren 15ean egindako Euskal Finantza Kontseiluan 2020rako murrizketaren aurreikuspena eguneratu eta zerga bilketa %14,5ean jaitsiko zela adierazi zen.

Hori honela, lau egun beranduago, urriaren 19ko Gipuzkoako Finantzen Kontseiluan (non alderdi politiko ezberdinetako udal ordezkariak daude, bai PSE, BILDU eta EAJ barne), aho batez adostu zen 2020ko azaroko ordainketaren zenbatekoa errebisatzeko, Euskal Finantza Kontseiluan adostutako aurreikuspenetara egokitzea, hau da, urtearen zerga bilketa jeitsiera %14,5ean aurrikusiz, oraingo hiruilekoan erregularizatzea urte osoko ordainketa. (107 M/€ gutxiago izango zirela aurrikusiz bazen, 85M/€ gutxiago izango direla da oraingo aurrikuspena), ondorioz, 22M/€ horiek azaroko ordainketan erregularizatzea adostu zen.

Bilera horretan bertan, Foru Aldundiak, euskal erakundeek eta gizarteak dituen beharrei indar handiagorekin aurre egin ahal izateko lortutako defizit eta zorpetzearen akordioaren emaitza, udalekin elkar-banatzeko konpromisoa azaldu zuen, gaur egungo ereduaren proportzioak jarraituz, hau da %60 aldundiarentzat eta %40 udalentsat.

Eta bukatzeko, gaur egun bizi dugun egoera desegonkor hau kontutan hartuta, 2021eko otsailean, 2020 urteko likidazioa egiterakoan, Gipuzkoako Finantza Kontseiluan aztertuko dira likidazioaren emaitza eta ondorioak.

Beraz, esan bezela, mozioan eskatzen diren puntu nagusiei buruz:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea azaroan egin beharreko Foru Funtsetan ordainketa Finantza Kontseiluan 2020ko urriaren 15ean informatutako aurreikuspenekin bat etorriz egin dadila. Hala adostu eta egin zen lau egun beranduago, urriaren 19an.*



- *Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, hala nahi duten udalekin batera, Itunaren Batzorde Mistoaren esparruan itundutako zenbatekoaren %40 gutxienez zorpetzeko ahalmena izatea. Hori ere, bilera berdinean hala izango zela adostu zen.*
- *Adostasun hori ofizialki argitaratu zen, Foru Aldundia eta EUDEL-en babesarekin, beraz EUDEL guzti honen jakitun da.*

Honegatik guztiagatik diogu, ez diogula zentzurik ikusten, aipatutako Gipuzkoako Finantzen Kontseiluan eta alderdi desberdinekin aho batez adostasun horiek lortu eta hilabete beranduago, mozio hau udalbatzar honetara ekartzea.

Arrazoi hauengatik EAJ udal taldeak ezetz bozkatuko du mozio honetan

Udalbatzarra jakinaren ganean geratzen da eta, adierazitakoak ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Anuska Esnal Oliden (EH Bildu), Ainara Munduate Iguaran (EH Bildu), Xabier Ibarguren Azkue (EH Bildu), Beñat Solaberrieta Albizu (EH Bildu), Bakarne Oliden Albeniz (EH Bildu), Bittor Andres Alkorta (EH Bildu) eta Jose Angel Iparragirre Alberdi (ORAIN), guztira **ZAZPI ALDEKO BOTO**; gehiengo absolutua, beraz. Kontrako botoak: Lourdes Salsamendi Goñi (EAJ), Andoni Torres Fernandez (EAJ), Jon Basurko Sarasua (EAJ), Amaia Gozategi Urbieta (EAJ) eta Jose Javier Gomez de Segura Arce (EAJ); guztira **BOST KONTRAKO BOTO**. Abstentzioak: Ana Priede Merchan (PSE-EE-PSOE); guztira **ABSTENTZIO BAT**]:

ONARTZEA EH Bildu talde politikoak Udal Finantzaketarako Foru Funtzari eta Zorpetzeari buruz aurkeztutako mozioa, goian jasota dagoen bezalaxe.

5.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrerara bertaratutako inork hitza hartu ez duenez, alkateak bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,